

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Euskalerrian gizakiak bere historia, nahiak, gustuak, gatazkak, aldarrikapenak adierazteko erabili dituen musika adierazpenak ulertzeko, musika adierazpenak ezagutu eta interpretazioak eginez, erabilitako abesti, dantza, musika eta soinu-tresnak aztertu.</p>	<p>1.1. <i>Euskal Herriko musika eta dantzaren lan nagusiak arakatu ditu eta garai bakoitzean izan duten funtzio aldarrikatzailea arakatu du. Emandako euskarriak baliatuz musikak garai ezberdinetan izan dituen ezaugarriak arakatu ditu.</i></p> <p>1.2. <i>Musika lan bat interpretatzen du, partituraren azterketa egokia eginez eta interpretazio teknika egokia erabiliz.</i></p> <p>1.3. <i>Ameriketako kontsumorako musikak dituzten ezaugarri eta historiari erreparatuz, ondo deskribatu du Euskal Herrikoekin alderatuz eta berdintasun eta ezberdintasunen arteko hipotesiak egiten ditu hauek arrazoituz.</i></p>
<p>2. Musikaren eta gizakiaren historiaren arteko lotura balioesteko, musikaren bidez gizakiok komunikaziorako dugun aukera jorratuz, komunikaziorako modua izan den irratia historia ezagutu.</p>	<p>2.1. <i>Irratigintzaren historia ezagutu du.</i></p> <p>2.2. <i>Garai bateko musika lan baten bertsio berritzaile bat teknika egokiaz interpretatzen du.</i></p> <p>2.3. <i>Bitarteko digitalak erabiliz eta garai ezberdinak musikarengan eta gizakiengan duen eragina aztertzeke, irratsaio baten sintonia sortu du.</i></p> <p>2.4. <i>Kontsumorako musikan bai Euskal Herrian zein beste herrialdeetako musikan egon diren fusioak identifikatzeko gai da.</i></p> <p>2.5. <i>Kontsumorako musikaren garapena adierazteko irratsaio bat sortzeko gai izan da estilo bakoitzeko lan nagusiak eta musikari edo musika talde nagusiak aipatuz.</i></p>